sanmarkos
Mankomunitatea

# SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
# ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

| **AKTA ZK./*ACTA Nº*** | **291/18** |
|---|---|
| **LEKUA/**<br>***LUGAR*** | San Marko Mankomunitatea<br>Bilera aretoa<br>*Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones*<br>Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian |

| **EGUNA/**<br>***DÍA*** | **ORDUA/**<br>***HORA*** | **DEIALDIA/**<br>***CONVOCATORIA*** | **Deialdi eguna/**<br>***Fecha convocatoria*** |
|---|---|---|---|
| 2018/09/28<br>*28/09/2018* | Hasiera/inicio: 12:00<br>Amaiera/final: 13:10 | Ohikoa<br>*Ordinaria* | 2018/09/24<br>*24/09/2018* |

| **BERTARATUAK** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. KIDEAK/*VOCALES*** | | | | |
| **UDALA/**<br>***AYTO.*** | **KIDEA/**<br>***VOCAL*** | **BERTARATUA/ *HA ASISTIDO*** <br>**BAI/SI** | **EZ/NO** | **BOZKAK**<br>***VOTOS*** |
| DONOSTIA SAN SEBASTIAN | Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (EAJ-PNV) *(Mankomunitateko Lehendakaria/ Presidente de la Mancomunidad)* | X | | 23,5 |
| | Miguel Angel Diez Bustos (PSE) | X | | 23,5 |
| LASARTE-ORIA | Jon Antxordoki Rekondo (*Suplente de* Estitxu Alkorta Barraganen ordezkoa). (EAJ-PNV) | | X | -- |
| | Agustin Valdivia Calvo (PSE) | X | | 6,5 |
| PASAIA | Lore Suarez Linazasoro (PSE) (bilurako 3. Gaitik aurrera a partir del punto 3º del orden del día). | | X | -- |
| | Miriam Cano Puy (EAJ-PNV) (bilkurako 3. Gaitik aurrera, a partir del punto 3º del orden del día) | X | | 6,5 |
| LEZO | Alfredo de la Puente Pagola (suplente de Miguel Angel Sánchez Antúnez) (EAJ-PNV) | X | | 5,5 |
| | Enrique Figueroa Laboa (suplente de José Ángel Sánchez Gallardo) (EAJ-PNV) | X | | 5,5 |
| URNIETA | Mikel Pagola Tolosa (EAJ-PNV) | X | | 5,5 |
| | Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV) | X | | 5,5 |
| ASTIGARRAGA | Juan Martin Arregui Sagües (EAJ-PNV) | | X | -- |
| | Mikel Duran Gonzalo (PSE) | X | | 5,0 |
| ERRENTERIA | Miguel María Rodriguez Barbero (Irabaziz) | X | | 8,5 |
| | Bernardo Lemos Taberna (BILDU) | X | | 8,5 |
| OIARTZUN | Eneritz Arbelaiz Sarasti (BILDU) | X | | 5,5 |
| | Iñaki Pikabea Lasa (BILDU) | X | | 5,5 |
| HERNANI | Martin Aldaya Olasagasti (BILDU) | | X | 6,5 |
| | Mª Coro Echeverria Tolosa (BILDU) | | X | 6,5 |
| USURBIL | Irene Gartzia Palacios (BILDU) | X | | 5,5 |
| | Xabier Arregi Iparragirre (BILDU) | X | | 5,5 |
| **2. BESTEAK/*OTROS*** | | **GUZTIRA *TOTAL*** | | **126** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| IDAZKARIA/<br>*SECRETARIO* | Xabier Loiola Aristi | KUDEATZAILEA/<br>*GERENTE* | Pedro Ugartemendia Garro |
| KONTU-HARTZAILEA/<br>*INTERVENTOR* | Julian Ortiz Arruabarrena | TEKNIKARI JURIDIKOA/<br>*TÉCNICA JURÍDICA* | Mirari Arriola Irizar |

sanmarkos
Mankomunitatea

| GAI ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| 1. Aurreko bilerako akta onartzea. | 1. Aprobación del acta de la reunión anterior. |
| 2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea. | 2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente. |
| 3. Langileen 2018. urteko ordainsarien igoera. | 3. Incremento de las retribuciones personal del año 2018. |
| 4. 2018ko Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) aldaketaren hasierako onarpena. | 4. Aprobación inicial de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) de 2018. |
| 5. Mankomunitatean kudeatutako instalazioetan jasotako tresna elektrikoen eta elektronikoen hondakinak (TEEH) kudeatzeko egun European RecyclingPlatform (ERP)-rekin sinaturiko hitzarmena betearaztearaztea eskatzea. | 5. Requerir el cumplimiento del convenio de cooperación firmado con EuropeanRecyclingPlatform (ERP), para la recogida de residuos de aparatos eléctricos y electrónicos (RAEE), recibidos en las instalaciones gestionadas por la Mancomunidad. |
| 6. Galde-eskeak. | 6. Ruegos y preguntas. |

**1. Aurreko bilerako akta onartzea.**

Xabier Arregik adierazi du bilera eguna data okerra daukala aktak eta zuzendu egin beharko dela, 2018/07/20 adieraziz.

Zuzenketa horrekin 2018ko uztailaren 20ko bileraren akta onartu da aldeko 117,5 boto eta abstentzio batekin, Miguel María Rodriguez Barberorena, bileran ez zelako egon.

**1. Aprobación del acta de la reunión anterior.**

Xabier Arregi indica que se debe de corregir el día de la sesión que figura en el borrador del acta: debe decir 20/07/2018.

Con esa corrección se aprueba el acta de la sesión del 20 de julio de 2018 con 117,5 votos a favor y una abstención, la de Miguel Maria Rodríguez Barbero porque no estuvo en la sesión.

**2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.**

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari (10 ebazpen).

Miguel Maria Rodriguezek informazio gehigarria eskatu du 21/2018, 23/2018, 24/2018, 25/2018 eta 26/2018.

Zuzendari-kudeatzaileak azalpenak eman ditu:

**21/2018**: Erreferentzia egiten dio San Marko Mankomunitatearen eta Lasarteko Udalaren arteko akordioari; haren arabera, zerbitzu osoa emateko gehieneko epea 2018ko urtarrilaren 1a zen. Lizitazio bat egin zen eta Cespa enpresari esleitu zitzaion. Harekin kontratu bat sinatu zen, hainbat herritan mailaka abiaraztea xedatzen zuena. Lasarten, 2018ko urtarrilaren 1ean jarri behar zen abian, baina 2018ko uztailaren 1ean jarri zen.

Cespak egindako gastu finkoak erreklamatu ditu. Haren zati handiena kamioi baten amortizazioa da. San Markok erreklamazioaren zati bat onartu du, ez osoa. Entzunaldi izapidea eman zaie Lasarteko Udalari eta Cespari, baina ez dute alegaziorik egin. Lasarteko Udalak bere kargu hartu beharko lituzke gastuak, eta prozedurak aurrera jarraitzen du.

**23/2018**: Aizmendiko zabortegiko gelaxkaren obrak egin zirenean, lurrak egokiak ez zirela konturatu ziren. Lurraren ustiatzaileari jakinarazi zitzaion, eta urtebeteko epea eman

**2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.**

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta (10 resoluciones).

Miguel Maria Rodríguez requiere información adicional sobre las resoluciones 21/2018, 23/2018, 24/2018, 25/2018 y 26/2018.

El director-gerente da explicaciones al respecto:

**21/2018**: Hace referencia al acuerdo de la Mancomunidad de San Marcos con el ayuntamiento de Lasarte, según el cual se establecía fecha máxima para empezar a dar el servicio integral de recogida el 01/01/2018. Se hizo una licitación que se adjudicó a la empresa Cespa, con la cual se firmó un contrato que marcaba una entrada en vigor escalonada en diferentes pueblos. Si bien, en Lasarte debía ponerse en marcha el 01/01/18, pero, se hizo efectiva el 01/07/18.

Cespa ha reclamado los gastos fijos en los que había incurrido. La parte más importante era la amortización de un camión. San Marcos ha admitido parte de la reclamación, no toda. Se ha dado trámite de audiencia al ayuntamiento de Lasarte y Cespa pero no ha habido alegación alguna. El ayuntamiento de Lasarte debería hacerse cargo de los gastos y el procedimiento sigue su curso.

**23/2018**: Cuando se hicieron las obras de la celda del vertedero de Aizmendi, se encontraton con unas tierras que no eran adecuadas. Se informó al explotador de las

zitzaion haiek kentzeko. Urtea amaitu aurretik kontratista aldatu zen, eta ABEE bat hartu zen. Epea bukatu denez eta lurrak kendu ez dituztenez, espediente bat ireki da Mankomunitateak subsidiarioki kendu ditzan. Horrekin batera, betetzeko baimen bat izapidetzen ari ziren Eusko Jaurlaritzan, eta subsidiarioki egikaritzeko erabaki horren aurkako alegazioak aurkeztu dituzte, epez kanpo. Arazo horren irtenbidea bilatzen ari dira, segurtasun juridikoa bermatze aldera.

tierras al respecto y se le dio un plazo de un año para que las retirara. Antes de finalizar el año se cambió de contratista a una UTE. Como el plazo ha finalizado y no han retirado esas tierras, se ha iniciado un expediente para que la Mancomunidad las retire subsidiariamente. A la vez, estaban tramitando una autorización para relleno en el Gobierno Vasco y han presentado alegaciones fuera de plazo contra esta decisión de ejecución subsidiaria. Por garantizar la seguridad jurídica, se está buscando una solución al tema.

**24/2018**, **25/2018**, **26/2018**: Gai beraren inguruan irekitako isun espedienteak dira.

**24/2018, 25/2018** y **26/2018**: Se trata de diferentes expedientes sancionadores abiertos en el mismo asunto.

Aizmendi ustiatzeko kontratuan hainbat egokitzapen eta obra zehaztu ziren, eta horietarako epeak ere bai. Hobekuntza horietako bat zen perimetroa ixtea (24), eta ez da egin. Hori dela eta, zehapen prozedura bat hasi da.

En el contrato de explotación de Aizmendi se marcaban una serie de acondicionamientos y obras que había que ejecutar y se daban unos plazos. Una de las mejoras era poner un cierre del perímetro (24) y no se ha hecho, por lo que se ha iniciado un procedimiento sancionador.

Egin beharreko beste bi lanak, zabortegiaren aurrealdeko albo drainatzeak (25/2018) eta mendebaldeko bide perimetral iraganezina (26/2018), ia amaituta daude.

Los otros dos temas pendientes: drenajes laterales del frente del vertedero (25/2018) y vial perimetral Oeste intransitable (26/2018) están prácticamente finalizados.

Alegazioak aurkeztu dituzte eta izapidetzen ari dira.

Han presentado alegaciones y se están tramitando.

Lehendakariak adierazi duenez, garrantzitsuena da egin beharreko jarduketak egitea.

El presidente ha comunicado que, en cualquier caso, lo importante es conseguir que se lleven a cabo las actuaciones necesarias.

## 3. Langileen 2018. urteko ordainsariaren igoera

## 3. Incremento de las retribuciones del personal del año 2018

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"2018ko uztailaren 4an EBOn argitaratu zen 6/2018 Legea, 2018ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrena. Lege horrek, 18. artikuluan, aukera ematen du gure enplegatu publikoen soldata-maila igotzeko neurriak hartzeko.

"El 04 de julio de 2018 se publicó en el BOE la Ley 6/2018 de Presupuestos Generales del Estado para el año 2018. Esta Ley en su artículo 18 posibilita la adopción de medidas para el incremento retributivo de nuestros empleados públicos.

Artikulu horrek **gehienez %1,5eko igoera** finkatzen du, funtzionarioen oinarrizko soldatari dagokionez, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko. Era berean, lege horrek

Ese artículo establece una **subida como máximo del 1,5%** del sueldo básico de las/los funcionarias/os respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2017. Asimismo esta ley recoge

**%0,25eko igoera jasotzen du, 2018ko uztailaren 1etik aurrerako indarrez, Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera, 2017ko prezio konstanteetan, soldata-igoeraren %3,1era iritsi edota hori gaindituz gero.**

Azkenik, soldata-masaren ehuneko **%0,2ko igoera osagarria baimentzeko aukera** aurreikusten du, besteak beste *produktibitatea edo efizientzia hobetzeko plan edo proiektuak ezartzeko, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen arteko osagai espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko edo pentsio-planetarako ekarpenetarako.* Administrazioetan eta artikulu honetan definitzen diren sektore publikoko bestelako erakundeetan, **2017ko ekitaldian aurrekontu-superabita badaukate ehuneko 0,3ra iritsi ahal izango da igoera osagarri hori".**

EUDELen Batzorde Eragileak lege agindu hori aztertu duelarik, ulertzen du komeni dela udal, mankomunitate eta bestelako erakunde publikoetan artikulu horren interpretazio eta aplikazioan enplegatu publikoen ahalik eta aldeen jokatzea. Gauzak horrela Lehendakaritza honek, mankomunitateko zuzendari-kudeatzailearekin gaia aztertu ondoren, Batzordeari egiten dio honako

**PROPOSAMENA**

LEHENA: Aipatutako 18. artikuluko lehen paragrafoari dagokionez, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera % 1,5 igotzea ordainsariak, mankomunitateko langile guztien ordainsari kontzeptu guztiak bezalaxe.

BIGARRENA: Aipatu 18. Bi artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, % 0,25eko soldata igoera gehigarria kontsignatzea, 2018ko uztailaren 1etik aurrerako eraginez, hain zuzen langileei ordaintzearren, igoera aplikatzea onartzen duen Ministro Kontseiluaren uztailaren 13ko akordioaren arabera.

HIRUGARRENA: Aipatu 18. artikuluko laugarren paragrafoari dagokionez, eta Mankomunitateak 2017ko ekitaldia aurrekontuko superabitarekin itxi zuenez,

la **subida del 0,25%, con efectos de 1 de julio de 2018, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2017 alcanzara o superase el 3,1%** de incremento salarial.

Por último, prevé además, **la posibilidad de autorizar un incremento adicional del 0,2%** por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, *la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones.* En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo **en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2017, este incremento adicional podrá alcanzar el 0,3%"**

Analizado el referido precepto por la Comisión Ejecutiva de EUDEL, que entiende conveniente facilitar e impulsar en el seno de los Ayuntamientos, Mancomunidades y demás organismos públicos la interpretación y aplicación de dicho artículo del modo más favorable para las empleadas y empleados públicos, esta Presidencia, tras tratar el tema con el Director-Gerente de la Mancomunidad realiza a la Junta la siguiente

**PROPUESTA**

PRIMERO: En relación con el párrafo primero del referido artículo 18, Incrementar a partir del 1 de enero de 2018 en un 1,5% las retribuciones, así como todos los conceptos retributivos de las trabajadoras y trabajadores de la Mancomunidad.

SEGUNDO: En relación con los párrafos segundo y tercero del referido art. 18. Dos, consignar un 0,25% de incremento salarial añadido, con efectos 01/07/2018, a fin de proceder a su abono al personal conforme al Acuerdo del 13 de julio por el de Consejo de Ministros que apruebe, en su caso, la aplicación del incremento.

TERCERO: En relación con el párrafo cuarto del referido art. 18, puesto que la Mancomunidad cerró el ejercicio 2017 en situación de superávit presupuestario,

baimena ematea soldata-masa beste %0,3 batez igotzeko, Elkarkidetzaren pentsio planetan langileak gehitzeko helburuarekin.

autorizar un incremento adicional del 0,3% de la masa salarial con el objetivo de fomentar las incorporaciones al plan de pensiones de Elkarkidetza.

LAUGARRENA: Aurrekoaren ondorioz, eguneratu egin behar dira San Markoseko plantillako langile guztien soldatako ordainsari-kontzeptuak, dagoeneko erabakitako guztirako ordainsariak Estatuak argitaratutako taulekin bateratzearren."

CUARTO: como consecuencia de lo anterior, proceder a actualizar los conceptos retributivos del salario de todos los trabajadores y trabajadoras de la plantilla de San Marcos, con el fin de alinear las retribuciones totales ya acordadas con las tablas publicadas por el Estado."

Bozkatu ostean, erabakia aho batez onartu da.

Realizada la votación el acuerdo se ha adoptado por unanimidad.

**4. 2018ko Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) aldaketaren hasierako onarpena.**

**4. Aprobación inicial de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) de 2018**

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"Orain arte, Mankomunitatearen plantillan jasotako administratibo izeneko lanpostuetako batek, 306 gisa definituak zehazki, konplexutasun ertain/altuko eginkizun batzuk zeuzkan esleituta. Horregatik, LKSk 2017ko urtearen hasieran egin balorazioak A2/C1 kategoriaz identifikatu zuen lanpostua. Gaur egun, bitarteko funtzionario batek otsailean uko egin ziolarik, lanpostua hutsik dago.

"Hasta la fecha, uno de los puestos denominados administrativo/a incluidos en la plantilla de la Mancomunidad, en concreto el definido como 306 tenía encomendadas una serie de tareas de complejidad media/alta. Por esa razón, la valoración llevada a cabo por LKS a principios de 2017 había identificado el puesto como categoría A2/C1. Actualmente, tras la renuncia por parte de una funcionaria interina a la plaza en febrero, esta plaza se encuentra vacante.

Aldi berean, plantillan teknikari juridiko bat sartzeak ekarri du berak hartzea lanpostuari esleitutako zailtasun handieneko eginkizunak. Beraz, lanpostu horren baldintzak aldatu behar dira.

A su vez, la incorporación a la plantilla de una técnica jurídica ha acarreado que las tareas de mayor dificultad asignadas hayan sido asumidas por la misma, por lo que se ve necesario modificar las condiciones de este puesto.

Langileekin eta sindikatuekin negoziazio prozesu bat zertu ondoren –horiek aldaketari alegazioak egiteko epea izan dute–, eta zuzendari-kudeatzailearen txostenean oinarrituta, honakoa proposatzen da:

Después de llevar a cabo un proceso de negociación con los trabajadores y sindicatos, los cuales han tenido un periodo para alegar dicha modificación, se propone, en base al informe del director-gerente:

LEHENA: Lanpostuen Zerrendaren (LPZ) aldaketari hasierako onarpena ematea, hurrengo orrialdean jasotzen den taularen arabera.

PRIMERO: Aprobar inicialmente la modificación de la RPT, en base a la tabla de la siguiente página.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15 egun baliodunеko epea emanez alegazioak aurkezteko.

HIRUGARRENA: Negoziazio bileretan parte hartu duten langileei eta sindikatuetako kideei jakinaraztea."

Kudeatzaileak aldaketa planteatzeko arrazoiak azaldu ditu:

Xabier Arregik adierazi duenez, aurkeztutako dokumentazioan kontraesankorrak dira lanposturako proposatutako kategoria (C1) eta eskatutako titulazioa (2). Kudeatzaileak zehaztu du konpondu beharreko akats bat dela, "3" titulazio maila azaldu behar baitzen. Akatsa konponduko da.

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 87 botorekin eta 8,5 aurkako bozkekin eta 31,5 abstentziorekin.

Aldeko 87 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; aurkako bozkak Errenteriako udaleko Miguel Maria Rodriguezenak dira eta abstenitutako 31,5 bozkak Errenteriako beste ordezkariarenak (Bernardo Lemos Taberna) eta Oiartzun eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

SEGUNDO: Publicarlo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, dando un plazo de 15 días hábiles para presentar alegaciones.

TERCERO: Notificarlo a los trabajadores y miembros de los sindicatos que han participado en las reuniones de negociación."

El gerente detalla las razones por las que se plantea la modificación.

Xabier Arregi indica que en la documentación aportada resulta contradictorio el dato relativo a la categoría propuesta para el puesto (C1) y la titulación exigida (2). El gerente puntualiza que se trata de un error a subsanar, ya que como nivel de titulación debe constar "3". Se subsanará el error.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por 87 votos a favor, 8,5 en contra y 31,5 abstenciones.

Los 87 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta, los 8,5 votos en contra corresponden al representante del ayuntamiento de Errenteria Miguel María Rodríguez y las abstenciones (31,5) corresponden al otro representante del ayuntamiento de Errentería (Bernardo Lemos Taberna) y a los representantes de los municipios de Oiartzun y Usurbil.

sanmarkos Mankomunitatea

**LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA/ MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO**

PERTSONAL FUNTZIONARIOAREN LANPOSTUAK/PUESTOS ATRIBUIDOS AL PERSONAL FUNCIONARIO

Egungoegoera/Situación actual:

| KOD COD | IZENA DENOMINACIÓN | DOT. | EGOERA SIT. | TALDEA CATEGORIA | TITUL. | D.O. C.D. | B.O. C.E | H.E. P.L. | DERRIG. FECHA PRECEPT | B.B. R.E. | OHAR. OBSERVAC. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 306 | AdministratiboaKontratazioa Administrativo Contratación | 1 | Hutsik Vacante | A2/C1 | 2-3 | 19 | 21.579,35 | 2 | 1996.12.11 | | |

Proposatzen den aldaketa/Propuesta de modificación:

| KOD COD | IZENA DENOMINACIÓN | DOT. | EGOERA SIT. | TALDEA CATEGORIA | TITUL. | D.O. C.D. | B.O. C.E | H.E. P.L. | DERRIG. FECHA PRECEPT | B.B. R.E. | OHAR. OBSERVAC. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 306 | Administratiboorokorra Administrativo general | 1 | Hutsik Vacante | C1 | 3 | 16 | 15.795 | 2 | 1996.12.11 | | |

Laburdurak/ Abreviaturas:

KOD./COD: Kodea/Código
DOT..: Dotazioa/Dotación
SIT: Situación
TITUL.: Titulazioa/Titulación
D.O./C.D: Destino osagarria/Complemento destino.
B.O./C.E.: Berariazko osagarria/Complemento específico.
H.E./P.L.: Hizkuntza eskakizuna/Perfil lingüístico.
B.B.: Baldintza bereziak/ Requisitos específicos.

Titulazioa/ Titulación:

1.- Goi mailako teknikaria, Zientziatan Lizentziatua edo goi mailako Ingenieritza.
2.- Erdi mailako teknikaria, Ingeniaritza mekanika edo antolakuntza arlokoa.
3.- L.H.2 administratibo arloa.
4.- Batxilerra, LH2 edo baliokidea.
5.- Zuzenbide gradua edo baliokidea.

1.- Téc. Superior, Licenciado Ciencias o Ingeniería Superior
2.- Téc. Medio, Ingeniería Mecánica o de Organización.
3.- F.P.2 Especialidad Administrativa.
4.- Bachiller, F.P.2 o equivalente.
5.- Grado en Derecho o equivalente.

**5. Mankomunitatean kudeatutako instalazioetan jasotako tresna elektrikoen eta elektronikoen hondakinak (TEEH) kudeatzeko egun European RecyclingPlatform (ERP)-rekin sinaturiko hitzarmena betearaztearaztea eskatzea.**

**5. Requerir el cumplimiento del convenio de cooperación firmado con EuropeanRecyclingPlatform (ERP), para la recogida de residuos de aparatos eléctricos y electrónicos (RAEE), recibidos en las instalaciones gestionadas por la Mancomunidad.**

Lehendakariaren proposamenak ondorengoa dio:

La propuesta del Presidente dice lo siguiente:

"2017ko martxoaren 15ean, San Markos Mankomunitateak lankidetza akordio bat sinatu zuen European Recycling Platform (ERP) deituarekin, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEH) biltzeko.

"El 15 de marzo de 2007 la Mancomunidad de San Marcos firmó con European Recycling Platform (ERP) un acuerdo de cooperación para la recogida de Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos (RAEE).

Hitzarmen horretan inolako obligazio ekonomikorik jasotzen ez bazen ere, 208/2005 Errege Dekretuak, otsailaren 25ekoak, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoak dioenaren babesean, 2007tik aurrera ERPk konpromisoa hartzen du hiru hilean behin kopuru bat ordaintzeko, bildutako tonako, hondakin horiek Mankomunitatearen instalazioetan kudeatzeak dituen kostuengatiko ordain gisa.

Aunque en ese convenio no se especificara ninguna obligación económica, al amparo de Real Decreto 208/2005, de 25 de febrero, sobre aparatos eléctricos y electrónicos y la gestión de sus residuos, a partir del 2007 ERP adquiere el compromiso para pagar una cantidad por tonelada recogida trimestralmente como compensación por los costes inherentes a la gestión de dichos residuos en las instalaciones de la Mancomunidad.

ERPk ez ditu bete obligazio ekonomiko horiek, eta gaur egun 85.055,15€ zor ditu, 2017ko bigarren hiruhilekoaz geroztik.

ERP ha incumplido esas obligaciones económicas, y actualmente, debe desde el segundo trimestre de 2017 la cantidad de 85.055,15€.

Hitzarmeneko hamargarren klausularen arabera, hitzarmena indargabetzeko arrazoien artean dago alderdietakoren batek behin eta berriro ez betetzea bere gain hartutako konpromisoak. Gainera, alderdietakoren batek akordioa amaitutzat eman nahi izanez gero, beste alderdiari jakinarazi beharko dio, txosten arrazoitu baten bitartez, eta hiru hilabeteko aurre-abisuarekin.

Según la cláusula decima del convenio, es causa de resolución, entre otros, el incumplimiento reiterado de los compromisos asumidos por alguna de las partes. Además, si alguna de las partes deseara resolver el acuerdo, deberá notificarlo a la otra parte mediante informe razonado y con un preaviso de tres meses.

Aurreko guztia kontuan harturik, honakoa ERABAKIA proposatzen da:

Teniendo en cuenta lo anterior, se propone adoptar el siguiente ACUERDO:

LEHENA: ERPri eskatzea 2 hilabeteko epean ordaintzeko Mankomunitatearekin duen zorra.

PRIMERO: Requerir a ERP para que en plazo de 2 meses pague la deuda que tiene con la Mancomunidad.

BIGARRENA: Lehendakariari ahalmena ematea, zor horiek ordaindu ezean indarrik gabe laga dezan TEEHak biltzearren 2007ko

SEGUNDO: Facultar al presidente para que en caso de que no se pagaran dichas deudas deje sin efecto el convenio firmado con ERP el

martxoaren 15ean ERPrekin sinatutako hitzarmena.

15 de marzo de 2007, para la recogida de los RAEE.

HIRUGARRENA: ERPri erabaki hau jakinaraztea."

TERCERO: Notificar este acuerdo a ERP."

Zuzendari kudeatzaileak azalpenak eman ditu. Azaldu du, Mankomunitateak hainbat gestio integratu sistemekin harremanak dituela, ecoembes, ecovidrio, etab. Baina pilak, bonbilak,... dagokienez, hainbat daude eta bere garaian txosten bat eskatu zen ze irizpide erabili bat aukeratzeko. Txostenaren arabera, irizpideak berak direnez, Mankomunitateak aukeratu dezake norekin burutu. Ondorioz, hitzarmen hau sinatu zen, baina ordainketak egunean egiten ari ez direnez, egunean jartzea proposatzen da, eta betetzen ez badu.

El director-gerente da explicaciones al respecto: Manifiesta que la Mancomunidad tiene relación con varios sistemas de gestión integrada: Ecoembes, Ecovidrio, etcétera. No obstante, existen varios para pilas, bombillas, etcétera, y en su momento se solicitó un informe sobre el criterio de selección de uno de ellos. El informe concluye que los criterios son los mismos, por lo que la Mancomunidad puede elegir entre ellos. Como consecuencia, se firmó este convenio, pero se propone actualizar los pagos, que no se encuentran actualizados, en caso de que no los cumpla.

Bozketa burututa, proposaturikoa onartu da, aldeko 109,5 botorekin eta 16,5 abstentzioekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la propuesta por 109,5 votos a favor y 16,5 abstenciones.

Aldeko 109,5 botoak Donostia, Errenteria, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako Udaletako ordezkarienak dira; abstenitutako 16,5 bozkak, berriz, Oiartzun eta Usurbilgo Udaleko ordezkarienak dira.

Los 109,5 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Errenteria, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta y las 16,5 abstenciones corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Oiartzun y Usurbil.

**10. Galde-eskeak.**

**10. Ruegos y preguntas**

1.- Agustín Valdivia Calvok, Lasarte-Oriako udaleko ordezkariak, Lasarteko Udalaren kexak eta nahigabea helarazi ditu, 2018ko uztailaren 1etik San Marko Mankomunitateak bere gain hartutako errefusaren eta hondakin handien bilketaren hainbat alderdiren ingurukoak.

1.- Agustín Valdivia Calvo, representante del ayuntamiento de Lasarte-Oria transmite las quejas y el descontento del ayuntamiento de Lasarte en relación con diferentes aspectos de las recogida de la fracción resto y voluminosos que ha asumido la Mancomunidad de San Marcos desde el 01/07/18.

Kudeatzaileak erantzun egin die Lasarte-Oriako mahaikideak azaldutako gaiei, eta Mankomunitateak egindako jarduketak zehaztu ditu. Arazoak konpontzeko elkarrizketarako gogoa azaldu du, baina nabarmendu du aipatutako gai batzuen erantzukizuna Lasarte-Oriako Udalarena dela, adibidez, lurpeko edukiontziena.

El gerente responde a los diferentes puntos expuestos por el vocal de Lasarte-Oria, especificando las actuaciones llevadas a cabo desde la Mancomunidad. Muestra su voluntad de dialogar para solventar los problemas, pero incide en que la responsabilidad en algunos de los temas mencionados corresponde al ayuntamiento de Lasarte-Oria, como son los contenedores soterrados.

2.- Miguel Maria Rodriguezek, Errenteriako ordezkariak, aipatu du Gasteizen mugikortasun

2.- Miguel Maria Rodriguez, representante del ayuntamiento de Rentería, comenta que han

urriko pertsona batek Irisgarritasun Legearen arabera nahitaezkoak diren edukiontzien irisgarritasun baldintzen inguruan jarritako salaketa baten epaiaren berri izan dutela. Iradoki du aztertzea zein baldintza bete behar diren lege horren arabera, aurreikusitako edukiontziak erosi aurretik. Gaineratu du San Marko Mankomunitateari Udalean sortutako galdera helarazten diola.

tenido noticias de una sentencia relativa a una denuncia interpuesta en Vitoria por una persona de movilidad reducida en relación con las condiciones de accesibilidad de los contenedores que son obligatorias según la Ley de accesibilidad. Sugieren que, antes de realizar la compra de contenederos prevista, se estudien cuáles son los requisitos a cumplir conforme a dicha ley. Añaden que trasladan a la Mancomunidad de San Marcos la pregunta que se les ha planteado al respecto en su ayuntamiento.

Kudeatzaileak erantzun du gaur egun edukiontzi irisgarriak jartzen direla aurrez horren inguruko eskaeraren bat jaso bada, eta ez beti, haien edukiera txikiagoa delako. Azkeneko erosketan 6 edukiontzi irisgarri erosi dira, edukiera murrizten ez dutenak.

El gerente responde que actualmente se colocan contenedores accesibles si existe una petición previa al respecto y no en todos los casos, porque su capacidad es más reducida. La última compra que se ha hecho de 6 contenedores, accesibles que no reducen la capacidad.

Bernardo Lemosek aipatu du Udaleko Batzordean oposizioak mahaigaineratu zela gaia, eta erantzun zitzaiola Mankomunitatean aztertuko zela.

Bernardo Lemos comenta que ha sido un tema que se puso encima de la mesa en la Comisión del Ayuntamiento por la oposición y que se le respondió que se analizaría en la Mancomunidad.

Kudeatzaileak erantzun du Irisgarritasun Legea aztertuko dela.

El gerente responde que se analizará la Ley de accesibilidad.

3.- Usurbilgo mahaikideak Xabier Arregik aipatzen du Foru Aldundiak PIGRUP onarpen prozesua martxan jarri duela. Horren ildotik hiru puntu adierazi ditu:

3.- El representante de Usurbil, Xabier Arregi, comenta que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha comenzado el proceso de admisión del PIGRUG. Comenta tres temas al respecto:

Batetik, San Marko Mankomunitateak plan horren informazio zehatza eman behar lukeela aipatzen du.

En primer lugar, menciona que la Mancomunidad de San Marcos debería proporcionar información detallada sobre el plan.

Bestetik, prozesuaren abiapuntua eta epeak desegokiak izan direla adierazi du, udako hilabetetan martxan jarri delako. San Marko Mankomunitatetik kexa formal bat helaraztea proposatzen du.

En segundo lugar, manifiesta que el punto de partida y los plazos del proceso no han sido adecuados, ya que se ha puesto en marcha en los meses de verano. Propone que la Mancomunidad de San Marcos interponga una queja formal.

Azkenik, plangintza honen garrantzia kontuan hartuta, Mankomunitatean lanketa sakon bat egitea proposatzen du, ahal den heinean, ahots amankomun bat egoteko.

Por último, considerando la relevancia de dicho plan, propone que la Mancomunidad lo analice en profundidad, de manera que tenga una voz común al respecto, en la medida de lo posible.

Lehendakariak eta kudeatzaileak erantzuten

El presidente y el gerente responden que no

dute Mankomunitateari ez zaiola partaidetza berezi bat eskatu. Eragile desberdinekin egindako lehenengo bilerara ezin izan zen parte hartu eta bigarren bilerarako deialdia jaso dela. Hala ere, epe egokien eskaera luzatuko da.

se ha solicitado a la Mancomunidad que tome parte de manera especial. No se pudo tomar parte en la primera reunión efectuada con varios agentes, y se ha recibido la convocatoria para una segunda reunión. De todas maneras, se solicitará la ampliación de los plazos que corresponda.

--

Akta ixtea

--

Cierre de acta

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko EGUERDIKO 13:10 direnean. Bere eduki guztiarekin AKTA hau idatzi da eta LEHENDAKARITZAK nirekin, IDAZKARIA naizen honekin batera, sinatuko du. Horrez gain, nik neuk FEDE EMATEN dut.

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 13:10 expresado en el encabezamiento, extendiéndose de todo su contenido la presente ACTA que firmará la PRESIDENCIA conmigo, el SECRETARIO, de que DOY FE,

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK**

**EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK**

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977